

Bidasoatik

AIRERA!

BIZITZA BABESTEN

HAUSNARKETARAKO
GAKOAK

Antxeta Irratia eta Ara!Gorputz
kooperatiba elkarlanean





Ara! Gorputzeko kideok “Bizitza Babesten” izenburupean artikulua sorta bat osatu genuen, baita horietako bakoitzean oinarritutako irratsaio bana ere.

Bizitza babesteaz, zuhaitzez, uraz, energiaz, lurra-lurraldea-gorputzaz eta defendatzaile izateaz aritu gara. Gozamena izan da guretzat horiez hausnartzea eta aukera hori zuengana hurbildu nahi dugu.

Horregatik, gai bakoitzarekin eta taldean urrats hauek ematea proposatzen dizuegu:

- Artikulua irakurri.
- Saioa entzun.
- Galdera gakoetatik abiatuz, taldean hausnartu.
- Gorputzak ikasi dezan, asmo horrekin sortutako ariketan murgildu.
- Aipatzen ditugun erreferentziak kuxkuxeatu.

Eta gozatu!

1. ATALA: Bizitza babesten

Artikulua irakurtzeko egin klik hor →



Irrati saioa entzuteko egin klik hor →



HAUSNARKETARAKO GAKOAK

Zuhaizti konplexuz eta mendi ederrez inguraturik gaude. Padura biziak, hondartza goxoak eta erreka freskoak gertu ditugu. Hori guztia gertu izanda ere..

- Ama Lurraren parte sentitzen al zara?
- Hirietan badago naturarik? Biribilguneetako bakardadean bizi diren zuhaitzak Ama Lurraren parte al dira? Eta etxe artean mugatuta dagoen eremu berdea?
- Zer da Ama Lurra?
- Nork babesten du? Nola? Zer egin dezakezu zuk?

Haurra zinenean nolako harremana zenuen Ama Lurrarekin?

Oroitzapen eder bat partekatu.

2. ATALA: Zuhaitzak, zaindari isilak

Artikulua irakurtzeko egin klik hor →



Irrati saioa entzuteko egin klik hor →



HAUSNARKETARAKO GAKOAK

Zuhaitzak bizitzaren zaindari isilak dira. Urtaro bakoitzean aldatu egiten dira, gu bezala ziklikoak dira. Baina zenbat eta zer dakigu beraietaz?

- Ezagutzen dituzu zure auzoko zuhaitzak?
- Zein motatakoak dira?
- Zein baldintzatan bizi dira? Behatu al dituzu inoiz?
- Gelditu al zara noizbait haien itzalpean?
- Ikusi al duzu nolako txoriak gerturatzen zaizkien?

Inguruko zuhaitzak ezagutzeko paseo bat egitea proposatzen dizugu. Eta zuhaitzek kalteren bat dutela ikusten baduzu, udalari abisua pasa diezaiokezu.

Urtero landaketa planak daude, urte honetakoa eskatu dezakezu eta betetzen dela baieztatu.

3. ATALA: Ura

Artikulua irakurtzeko egin klik hor →



Irrati saioa entzuteko egin klik hor →



HAUSNARKETARAKO GAKOAK

Ura gara eta ura dugu inguruan. Hona hemen gaia arakatzeko zenbait galdera:

- Zure familiak ba al du edateko urik etxean? Noiztik?
- Zeinek kudeatzen du ura zure eskualdean? Enpresa pribatu batek? Udal zerbitzuak?
- Nondik dator kontsumitzen duzun ura? Nondik jasotzen da ur hori?
- Zenbat lekutan jasotzen duzu ura etxean?
- Zertarako erabiltzen da batez ere ura zure etxean?
- Badakizu zure gorputzaren zein ehuneko den ura?


Kontsumitzen duzun ura jasotzen duen urmaelara txangoa egitea proposatzen dizugu.

4. ATALA: Energia, mugitzen gaituen hori

Artikulua irakurtzeko egin klik hor



Irrati saioa entzuteko egin klik hor



HAUSNARKETARAKO GAKOAK

Energia uneoro dabilgu. Energiaren aldaera baten inguruan, argindarraren inguruan, hausnartzeko zenbait galdera partekatzen dizkizugu:

- Noiztik dauka argindarra etxean zure familiak?
- Nondik dator erabiltzen duzun argindarra?
- Zertarako erabiltzen duzu argindarra?
- Zein argindar konpainia duzue kontratatua etxean? Eta erabiltzen dituzun beste espazioetan?
- Zer dakizu energia berriztagarrien inguruan? Ba al dakizu energia berriztagarriak kontsumitu ditzakezula?

Zure barne energia behatzera gonbidatzen zaitugu. Nolakoa da gaur? Zenbat energia mota dituzu? Zeren arabera da modu batekoa edo bestekoa?

5. ATALA: Lurra-Gorputza-Lurraldea

Artikulua irakurtzeko egin klik hor →



Irrati saioa entzuteko egin klik hor →



HAUSNARKETARAKO GAKOAK

Abya Yalatik ohore handiz jasotako kontzeptua ulertzen laguntzeko galdera batzuk partekatzen dizkizugu:

- Nolakoa da lurrarekin daukazu harremana? Zertan egikaritzen da?
- Nolakoa da gorputzarekin daukazu harremana? Urteekin aldatu da? Nola bizi izan duzu aldaketa?
- Zein da lurraldearekin duzun harremana? Ba al dago aukerarik harreman hori indartzeko?
- Aipatutako hiru kontzeptuen artean harremanik ikusten al duzu? Zein?

Zure inguruan, zein eragilek lantzen du lurra? Zeinek lurraldea? Zeinek gorputza? Baten batek hirurak batera lantzen al ditu? Nola? Zer egiten zaizu inspiragarri?

6. ATALA: Izan gaitezen defendatzaile!

Artikulua irakurtzeko egin klik hor →



Irrati saioa entzuteko egin klik hor →



HAUSNARKETARAKO GAKOAK

Azken atalera iritsi gara. Bertan, Euskal Herriko defendatzaileen errepaso bat egitea proposatzen dugu.

- Aipatzen ditugunez gain, ezagutzen al duzu beste prozesu defendatzeilerik?
- Nolako borrokak izan ziren?
- Gaur egun, ezagutzen duzu lan horietan dabilen inor?
- Ezagutzen baduzu, zein dira horien indarguneak? Eta ahulguneak?

Irudikatu zure auzoko zuhaitz guztiak moztu behar dituztela parking bat egiteko. Nola sentituko zinateke? Zer egingo zenuke? Nola sortuko zenuke bizitza defendatzeko eraginkorra izan daitekeen estrategia bat? Norekin egingo zenuke?

Jolastu dezagun erresistentzia prozesu bat sortzera!

ERREFERENTZIAK

1. atala: Bizitza babesten

- Ara! Gorputz kooperatiba
- Antxeta irratia

2. atala: Zuhaitzak

- Artiako zuhaitzen inguruan (gazteleraz)
- ‘Gutik Zura’ dokumentala
- ‘Los arboles hablan’ bideoa

3. atala: Ura

- ‘Urak Aske’ dokumentala
- Ibaietako egoera (Arturo Eloseggi).podkast
- ‘Ni, Bidasoa’ dokumentala

4. atala: Energia

- EHko energia kontsumoaren inguruan (Gaindegia).
- EH Ekofeminismo topaketen kronika
- Trantsizio ekosoziala EHan, elkarrizketa
- Goiener, energia komunitateak

5. atala: Lurra–Gorputza–Lurraldea

- Ekonomia Feminista eskolatzoko moduluak euskaraz
- Ekonomia Feminista eskolatzoko aurkezpen bideoa

6. atala: Izan gaitzen defendatzaileak

- ‘Abiadura handiko txikizioa’ dokumentala
- Itoizko urtegia
- Lemoiz eta Garoñako zentral nuklearrak
- Basoa, defendatzaileen etxea
- Emakumeen Mundu Martxa
- Hernani Burujabe

Bidasoatik
AIRERA!

BIZITZA BABESTEN



Mundubat



ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua